

**HEZKUNTZA.** Bilbon atzo egin zuten protestaldian ezohiko irudia zabaldu zuten euskal gizarteko eragileek; hezkuntza sektoreko elkarte, alderdi politiko eta sindikatu ia guztiek elkarrekin jardun zuten Espainiako Gobernuaren hezkuntza proiektuaren aurka

# Kalitate Legea salatzeako manifestazioa egin dute milaka lagunek Bilbon

Parte-hartzaileek legea ezartzeak ekarriko lituzkeen ondorio larriez ohartarazi, eta, «kalitateko hezkuntza eleanitza» galdatzeaz gainera, heziketa eredu «integratzaile eta parte-hartzailea» eskatu dute



JON HERNANDEZ / ARGAZKI PRESS

**MILAKA LAGUN.** Bilboko kaleetan milaka lagunek errefusatu zuten PPko gobernuak onartu asmo duen Kalitate Lege egitasmoa.

Iban Ocio-Joseba Aiarza | **BILBO**

Espainiako Gobernuak ezarri gura duen Kalitate Legea arbuizatzeko, milaka eta milaka lagun Bilbon elkarretaratu zen atzo. *Hezkuntza, geurea eta solidarioa* lelopean egin zuten manifestazioa. Parte-hartzaileek Jesusen Bihotza plazan ekin zioten osteratxoari, eta ordubete eskasean Areatzara ailegatu ziren. Bidean, ezohiko irudia zabaldu zuten: Euskal Herriko hezkuntza alorreko eragile ia guztiak lotuta ageri ziren. Gainera, PP ez beste alderdi politiko guztietako ordezkariak protestaldiarekin bat egin zuten. Sindikatu eta nagusietako eldunek ere bai. Orobat, gizarte eragile anitzeko kideek, gurasoek eta ikasleek ezetz biribila

eman zioten aurki onartuko eiz duten Kalitate Legeari.

## Orotariko gizarte eragileek jardun zuten protestaldian

Arratsaldeko sei etan, jai giroan abiatu ziren manifestariak. Ikurrinaren atzetik, pankarta nagusiari eusten zioten: EHIGEko Ana Eizagirre, Ikastolen Elkarteko Antonio Campos, Sortzen Ikasbatuaz-eko Juan Carlos Aretxabaleta, Sarean-eko Iñaki Etxebarria, EILASEko Belen Arrondo, ELAko Amaia Aierbe, LABeko Lourdes Uribarri, UGTko Jose Luis Ruiz, eta Ikasle Abertzaleetako Miren Zabaleta... hezkuntzako estamentu guztietako kideak.

Ondoren zihoazen izen handiagoko politikariak: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sail-

## MANIFESTAZIO AMAIA

**Pankarta alternatibo bat zabaldu zuten zenbait lagunek «benetako euskal hezkuntza sistema» aldarrikatzeko**

buru Anjeles Iztueta, EAJko Josune Aristondo, IU-EBko Oscar Matute, PSE-EEko Isabel Celaa, EAKo Gorka Knorr, Batasuneko Tasio Erkizia... Tartean zen Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusia ere.

Atzerago, guraso, maisu-maistra eta ikasle andanak orpo orpo jarraitu zien agintariei. Tartean, orotariko leloak

irakur zitezkeen, baina hiru aldarri nagusi: *Guk, geure hezkuntza; Uniformizaziorik ez; eta Euskal hezkuntza nazionala aurrera.* Oihukatu, bestalde, gutxi egin zuten manifestariak. Protestaldi isila alaitu zuten Oskorriren doinuek eta Bilboko Kale Nagusia zeharkatzen ari ziren lagunen zurrumurruak. Izan ere, Kalitate Legea gutxiesten milaka eta milaka lagun batu ziren hiribilduan. Zahar ala gazte, dendenek aho batez berretsi zuten Espainiako Gobernuaren hezkuntza proiektuak kalte besterik ez duela ekarriko.

## Manifestazio bukaerako hitzaldi eta pankarta alternatiboa

Mantso-mantso, manifestariak bete zuten Jesusen Bihotzetik eta Plaza Biribileraingo ibilbi-

dea. Hantxe, pankarta alternatibo bati eusten zioten lagunak aurreratu zitzaizkien. *Euskal hezkuntza sistema nazionala* lelopean azken metroak manifestazio buruan egin zituzten. Kideok EGUNKARIARI azaldu zioten «protestaldiaren lelo desnazionalizatuaren aurka, benetako hezkuntza sistema euskaldunaren alde» zihardutela pankarta nagusiaren aurrean.

Bukaeran, aurreikusitako manifestua irakurri zuten Areatzan. «Inposizioari, uniformizazioari eta atzerakuntzari» ezetza eman ondok, «kalitateko hezkuntza eleanitza» eskatu zuten. Halaber, «hezkuntza eredu parte-hartzaile eta integratzailea» goraiatu zuten, eta, beste behin, PPren Kalitate Legea arbuizatu.